INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6247

EBAZPENA, 2008ko irailaren 1ekoa, Energia eta Meategien zuzendariarena, «MOP ≤ 5 bar-eko gas naturala banatzeko sarea eta Etxebarriako ENE» deritzon proiektuaren administrazio-baimenerako eskabideari buruzkoa.

Erref.: GUD-XXXI Etxebarria 48-CGB-2008/12 JCE/JAR

D. Naturgas Energía Distribución SAUren izenean eta ordez, 2008-03-18an, Javier Bermejillo Eguia jaunak honako baimena eskatu zuen: Bizkaiko Etxebarriako udalerrian gas naturala banatzeko sare baten instalazioak eraikitzeko baimena; sarearen izena: «MOP ≤ 5 bar-eko gas naturala banatzeko sarea eta Etxebarriako ENE».

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

AURREKARIAK

Bat.– Espedientea jendaurrean jarri zen eta iragarkia 2008ko ekainaren 23ko EHAAn eta 2008ko maiatzaren 8ko BAOn argitaratu zen, bai eta 2008ko maiatzaren 6ko Deia eta El Correo egunkarietan ere; bestalde, Etxebarriako Udalari igorri zitzaion, bertako iragarki-oholean jartzeko. Lehia egiteko proiekturik ez da aurkeztu, ez eta gaiari buruzko alegaziorik ere.

Bi.– Uraren Euskal Agentziako Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoari eta Etxebarriako Udalari txostena eta baldintzak eskatuta, txostena eman dute, honako hauek azpimarratuta:

• Uraren Euskal Agentziak 2008-05-06ko idazkiaren bitartez honako hauek adierazten ditu:

– Urko ibaiaren eta proiektuaren 101.01 nodotik 101.10 nodora bitarteko tartearen arteko paralelismoak ibilgailuaren zortasuneko 5 metroak errespetatu beharko ditu, edo bide azpian kokatuta joan (zaharkako sekzio bat egin behar zaio ibaiaren ardatzari).

– 113.10 nodoa kokatzerakoan ondoko errekastoaren zortasuneko 5 m-ko tartea errespetatu beharko da.

Naturgas Energía Distribución enpresak onartu egiten ditu aurreko baldintzak, 2008ko uztailaren 24ko espedienteko idazki batek dioenez; idazki hori 2008ko uztailaren 28an sartu zen Bizkaiko Lurralde Bulegoan.

Hiru.– Naturgas enpresari 2008ko maiatzaren 9an eta 2008ko ekainaren 19an informazio osagarria eskatu zitzaion Urko-Urkarregi ibaiei eta errekastoei buruz. In-

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

6247

RESOLUCIÓN de 1 de septiembre de 2008, del Director de Energía y Minas, en relación a la solicitud de autorización de instalaciones de gas natural denominada «Red de Distribución de Gas Natural (MOP ≤ 5 BAR) y ERM de Etxebarria».

Ref.: GUD-XXXI Etxebarria 48-CGB-2008/12 JCE/JAR

D. Javier Bermejillo Eguia, en nombre y representación de la empresa Naturgas Energía Distribución, S.A.U. ha solicitado el 18-03-2008 la autorización de la construcción de las instalaciones de una red de distribución de gas natural en el municipio de Etxebarria, Territorio Histórico de Bizkaia, denominada «Red de Distribución de Gas Natural (MOP ≤ 5 BAR) y ERM De Etxebarria».

En la resolución del expediente es preciso tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Sometido el expediente referenciado al trámite de información pública, se publicó el anuncio correspondiente en el BOPV de 23 de junio de 2008, BOB de 8 de mayo de 2008, así como el los diarios Deia y El Correo de fecha 6 de mayo de 2008, enviándose asimismo el anuncio para su inserción en el Tablón del Ayuntamiento de Etxebarria, no ha sido presentado ningún proyecto en competencia ni alegaciones sobre el particular.

Dos.– Solicitado informe y condicionado a la Oficina de la Cuencas Cantábricas Occidentales de la Agencia Vasca del Agua (URA) y al Ayuntamiento de Etxebarria, han emitido informe los mismos, resaltándose:

• La Agencia Vasca del Agua a través del escrito de 06-05-2008 detalla lo siguiente:

– El paralelismo entre el río Urko y el tramo comprendido entre el nodo 101.01 y el 101.10 del proyecto, deberá respetar los 5 m de servidumbre del cauce, o ir alojado bajo el vial existente (Se debe realizar una sección Transversal al eje del río).

– El nodo 113.10 deberá situarse respetando la franja de 5 m de servidumbre del arroyo colindante.

La empresa Naturgas Energía Distribución acepta los condicionados anteriores, según escrito que consta en el expediente del 24-07-2008 con entrada en la Oficina Territorial de Bizkaia el 28-07-2008.

Tres.– Habiendo sido requerida documentación complementaria a Naturgas relativa a la afección de los ríos Urko-Urkarregi y arroyos el 09-05-2008 y el

formazio hori 2008ko uztailaren 11 eta 28an aurkeztu zen Lurralde Bulegoan.

Ebazpenak oinarri hauek ditu:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Espediente hau ebaztea Energia eta Meategien Zuzendaritzari dagokio, hain zuzen ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen dituen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriaz (2005-10-27ko EHAA).

Bi.– Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean (2008-10-08ko BOE), gas naturaleko instalazioetako garraioa, banaketa, merkaturatzea eta horniketa arautzen dituen abenduaren 27ko 1434/2002 Errege Dekretuan (2002-12-31ko BOE), uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretuan (2006-09-04ko BOE) eta ekainaren 9ko 107/1998 Dekretuan (1998-06-26ko EHAA) ezartzen denez, gasa banatzeko sareak eraikitzeko beharrezkoa da aldez aurretiko administrazio-baimena.

Hiru.– Urriaren 7ko 34/1998 Legeak herriarentzat onuragarriak direla aitortzen ditu hodi bidez gas-erregaia banatzeko IV. eta V. tituluetan aipatutako instalazioak.

Lau.– Espedientearen izapideetan eta bere edukian aipatutako legeetan ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatuta geratu da.

Aipatutako lege-manuak, eta, oro har zein berariaz, gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honakoa

EBATZI DU:

Bat.– Naturgas Energía Distribución SAUri baimena ematea, «MOP ≤ 5 bar-eko gas naturala banatzeko sarea eta Etxebarriako ENE» proiektuan gas naturaleko instalazioak eraikitzeko; gasbide horren ezaugarri nagusiak honakoak dira:

Helburua da hirigunean gas naturala kanalizatzea, erregulazio eta neurketarako eremu bat ezarriz. Eremu hori 16 bar-era bitarteko presio baxuan elikatuta egongo da, eta 5 bar-era bitarteko irteera izango du, bai eta gehienez ere 2.000na m3 (N) h izango dituzten bi linea ere. Sarrerako hodia AC API 5 l Gr B Ø2« altzairuzkoa izango da, eta ENEko irteerako hodia, ordea, AC API 5 l Gr B Ø4» altzairuzkoa izango da, 8 bat metroko luzera duela bakoitzak. Irteerako giltzatik Ibaun-Erdi Auzuneko 2. atzealdera bitartean, PE DN 110 sarea dago, eta handik aurrera egiten da hiriguneko banaketa-sarerako konexioa, hain zuzen ere, ibilgua, Urko ibaia, Urkaregi ibaia eta errekasto bat zeharkatuz, eta iparraldean Kortabitiraino iristeko, eta ekialdean Fcraino iristeko, eta hori 111.05 nudoari dagokio, Egur-Lan aroztegiaren aurrean.

19-06-2008, ésta se presenta el 11 y 28-07-2008, en la Oficina Territorial.

Esta Resolución se basa en los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Energía y Minas es el órgano competente para la resolución de este expediente, de conformidad con lo establecido en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo (BOPV de 27-10-2005).

Dos.– La Ley 34/1998, de 7 de octubre (BOE de 08-10-1998), del Sector de Hidrocarburos, el Reglamento que regula las actividades de transporte, distribución, comercialización y suministro de gas natural aprobado por el RD 1434/2002, de 27 de diciembre (BOE de 31-12-2002); el RD 919/2006 de 28 de julio (BOE de 04-09-2006) y el Decreto 107/1998 de 9 de junio (BOPV de 26-06-1998) que establece la exigencia de la autorización administrativa previa, para la construcción de redes de distribución de gas.

Tres.– La Ley 34/1998 de 7 de octubre, declara de Utilidad Pública las instalaciones a las que se refiere los Títulos IV y V de la Ley relativas al suministro de gases combustibles por canalización.

Cuatro.– En la tramitación del expediente y en el contenido del mismo queda acreditado el cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidos en la citada legislación.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVE:

Uno.– Autorizar a Naturgas Energía Distribución, S.A.U., las instalaciones de gas natural correspondientes al proyecto denominado «Red de Distribución de Gas Natural (MOP ≤ 5 BAR) y ERM de Etxebarria», con las siguientes características:

El objetivo es realizar la canalización de gas natural en el casco urbano, con la instalación de una Estación de Regulación y Medida, alimentada en alta presión hasta 16 bar y con salida hasta 5 bar y dos líneas de 2.000 m3 (N) h de capacidad máxima por línea. La tubería de entrada será de acero AC API 5 l Gr B Ø2« y la tubería de salida de la ERM será de acero AC API 5 l Gr B Ø4» de longitud aproximada 8 m cada una. Desde la llave de salida hasta la trasera n.º 2 de Ibaun-Erdi Auzunea está la red existente PE DN 110, y es a partir de este punto donde se realiza la conexión para la red de distribución del casco urbano, atravesando el canal, río Urko, río Urkaregi y un arroyo, y llegar al norte hasta Kortabiti y al este hasta FC correspondiendo al nudo 111.05 delante de carpintería Egur-Lan.

Banaketa-sarea polietilenozkoa izango da, PE 100 SDR 17,6 eta 11 motakoa, 1.529 m-tan; DN 90 96 m-tan, DN 63 211 m-tan eta DN 32ko hartuneak 261 m-tan.

Gehienezko operazio-presioa 5 bar-era bitartekoa izango da.

Aurkeztutako proiektuko memorian eta planoetan deskribatu beharko dira sarearen ibilbide osoa eta ezaugarriak.

Bi.– Baimen honek honako baldintzak bete beharko ditu:

1.– Horniketa egingo den aldea mugatzea eta bai alde horretan eskatzaileak sarea hedatzeko dituen konpromisoak ere, txostenak eta proiektuan nahiz separatan jasotako planoek zehaztu beharko dute.

2.– Baimen honen bidez berretsitako konpromisoaren ondoriozko obligazioak betetzeko berme gisa 4.273,95 (lau mila berrehun eta hirurogeita hamahiru euro eta laurogeita hamabost zentimo) euroko fidantza aurkeztu beharko du Naturgas Energía Distribución SAk, bi hilabeteko epean, betiere urriaren 7ko 34/1998 Legearen 73.4 artikuluan aurreikusitako % 2rekin bat etorriaz. Uztailaren 21eko 1775/1967 Dekretuko 11. artikuluaren 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriaz, fidantza hori, eskudiruan edo Estatuaren titulutan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kutxa Nagusian aurkeztu beharko da; edo, bestela, aseguru erakunderen batekin egindako aseguru-kontratu baten bitartez, betiere, Espainia EEEri atxikitzeko itunaren ondoriozko konpromisoei egokitzeari buruzko ekainaren 6ko 1255/1986 Legegintzako Errege Dekretuari eta Aseguru Pribatua antolatzeari buruzko 1954ko abuztuaren 2ko 33/1984 Legeari atxikitakoak badira aipatu erakundeak. Instalazioei dagokienez, baimendurik, muntatzeko baimenean finkatutako epeetan eraiki eta eskudun lurralde-organoek, martxan jartzeko akta edo aktak formalizatu ondoren, fidantza itzuli egingo zaio Naturgas Energía Distribución SAUri.

3.– Instalazioak egiteko epea: aldizkari ofizialetan baimena azkenekoz argitaratzen den egunetik harako 36 hilabetetik beherakoa.

4.– Instalazioak guztiz edo zati baten, martxan jartzeari buruzko akta formalizatzen den egunetik harako 30 egunetik beherako epean hasi beharko du gas-eroanbidea Naturgas Energía Distribución SAUk.

5.– Gas-erregaien sare eta hartuneei buruzko Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko dute instalazioek; Industria Ministerioaren 1974-11-18ko Aginduaz onartu zen erregelamendu hori, eta Industria Ministerioaren 1983-10-26ko, 1984-07-06ko eta 1998-05-29ko Aginduez aldatu, uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretuaren ITC-ICG-01ek aldatzen ez dizkien gaietan.

La red de distribución será de polietileno PE 100 SDR 17,6 y 11 con DN 110 en una longitud de 1.529 m, DN 90 en 96 m, DN 63 en 211 m y en acometidas con DN 32 en 261 m.

La presión máxima de operación será hasta 5 bar.

El recorrido completo de la red y todas sus características están descritos en la memoria y planos del proyecto presentado.

Dos.– La presente autorización estará sujeta a las siguientes condiciones:

1.– La delimitación de la zona en la que se debe prestar el suministro, así como los compromisos de expansión de la red del solicitante en dicha zona se determinan por la memoria y los planos recogidos en el proyecto y separata.

2.– Naturgas Energía Distribución, S.A. constituirá en un plazo inferior a 2 meses una fianza por cuatro mil doscientos setenta y tres euros y noventa y cinco céntimos (4.273,95) en garantía del cumplimiento de sus obligaciones derivadas de su compromiso ratificado por la presente autorización, de acuerdo con el 2% previsto en el artículo 73.4 de la Ley 34/1998, de 7 de octubre. Dicha fianza se constituirá en la Caja Central de Depósitos del País Vasco, en metálico o en valores del Estado, o mediante avales bancarios, según lo dispuesto en el artículo 11, apartado 3, del Decreto 1775/1967, de 21 de julio, o mediante el contrato de seguro concedido con Entidades de Seguros de las sometidas a la Ley de 16 de diciembre de 1954 y Ley 33/1984, de 2 de agosto, sobre ordenación del Seguro Privado, y al Real Decreto Legislativo 1255/1986, de 6 de junio, de adaptación a los compromisos derivados del Tratado de Adhesión de España a la CEE La fianza será devuelta a Naturgas Energía Distribución, S.A.U. una vez que, autorizadas las instalaciones y construidas en los plazos que se establezcan en la autorización para el montaje de las mismas, los órganos territoriales competentes formalicen el acta o actas de puesta en marcha de las citadas instalaciones.

3.– El plazo para la ejecución de las instalaciones del caso será de 36 meses a partir de la última fecha de publicación de la autorización en Boletines Oficiales.

4.– Naturgas Energía Distribución, S.A.U. deberá iniciar la conducción del gas en el plazo inferior a 30 días a partir de la fecha en que se formalice el Acta de Puesta en Marcha, bien parcial o total de las instalaciones.

5.– Las instalaciones deberán cumplir lo establecido en el Reglamento de Redes y Acometidas de Combustibles Gaseosos aprobado por Orden del Ministerio de Industria de 18-11-1974, modificada por las Órdenes del Ministerio de Industria de 26-10-1983, 06-07-1984 y de 29-05-1998 en lo que no les modifica la ITC-ICG-01 del RD 919/2006 de 28 de julio.

6.– Banaketa-sareko adar bakoitzak bereizketa-giltza izan beharko du.

7.– Eraikineko giltza bazter baliteke ere, hartune-giltzak eduki beharko ditu sareak.

8.– Horniketa seguruago eta malguagoak erdiesteko eta gasaren arloko aurrerakuntza teknologikoei erantzuteko prestatu beharko dira instalazioak.

9.– Hasierako baimena eman zuen agintaritzari jakinarazi beharko zaio instalazio hauek transmititzearena.

10.– Eskatzen duten kontsumitzaile guztiei egingo zaie kanalizatutako gas erregaien horniketa, betiere proiektuari doakion eremuko alde geografikoetan eta arauzko kalitate eta segurtasun baldintzetan.

Hiru.– «MOP ≤ 5 bar-eko gas naturala banatzeko sarea eta Etxebarriako ENE» izeneko proiektuaren eta separata teknikoaren arabera egin beharko dira ebazpen honekin baimentzen diren instalazioak. Biak ala biak J. Ignacio Villanueva Ortueta industria ingeniariak sinatu zituen eta Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialean bisatu ziren, bata 2008-03-13an, separataren 1339 zenbakia duena, eta bestea 2008-07-04an, 3489 zenbakiduna.

Lau.– Ematen den baimen honek ez dauka zerikusirik obrak egiteko beharrezko diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentziekin eta gainerakoekin; beraz, eskatzaileak beroiek eskatu beharko ditu hala dagokionean.

Bost.– Edozelan ere, baimen hau ez da ematen monopolio-erregimenean eta ez du ekarriko eskubide esklusiborik.

Sei.– Abian jartzeko akta lortzeko, Bizkaiko Lurralde Bulegoan honako hauek aurkeztu beharko dira: obra zuzendaritzari dagozkion ziurtagiriak, eraginpeko erakundeen proben aktak eta baimenei dagozkienak, eta «as built» planoak, non gas-sarearen egoera eta sare hori beste zerbitzu batzuekin non gurutzatzen den zehaztuko baita.

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, ondorioz, gora jotzeko errekurtsoa ezar daiteke Berrikuntza eta Energia Sailburuordetzan, honako ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean; halaxe dago ezarrita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 1a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

6.– Cada ramal de la red de distribución incorporará llave de independización.

7.– La red incorporará, donde sea preciso, llaves de acometida independientemente de que pueda prescindirse de la llave de edificio.

8.– Las instalaciones deberán preverse para responder a los avances tecnológicos en el campo del gas y lograr abastecimientos más flexibles y seguros.

9.– La transmisión de estas instalaciones deberá ser comunicada a la autoridad concedente de la autorización original.

10.– El suministro de combustibles gaseosos por canalización se realizará a todos los consumidores que lo demanden, comprendidos en las áreas geográficas pertenecientes al ámbito correspondiente al proyecto y en las condiciones de seguridad y calidad reglamentarias.

Tres.– Las instalaciones que se autorizan habrán de realizarse de acuerdo con el proyecto y separata técnica, denominado el proyecto «Red de Distribución de Gas Natural (MOP ≤ 5 BAR) y ERM de Etxebarria», ambos firmados por el Ingeniero Industrial D. Ignacio Villanueva Ortueta y visados por el Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Bizkaia el 13-03-2008 con el n.º 1339, y el 04-07-2008 con el n.º 3489 de la separata técnica.

Cuatro.– La autorización se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial u otros, necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la necesidad de obtención de los mismos.

Cinco.– La autorización en ningún caso se entenderá concedida en régimen de monopolio ni concede derechos exclusivos.

Seis.– Para la obtención de la puesta en marcha deberán presentarse en la Oficina Territorial de Bizkaia los correspondientes Certificados de Dirección de Obra, actas de pruebas y permisos de organismos afectados, así como los planos «as built» donde se determine la situación de la red de gas y los cruces de ésta con otros servicios.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Innovación y Energía, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de septiembre de 2008.

El Director de Energía y Minas,
TXABER LEZAMIZ CONDE.